

Harri-jasotzea ♦ Uztalean jokatuko dira harri-jasotze txapelketa gehienak, eta irailean amaituko dira

Txapelketa berririk ez da izango


Euskal Herriko harri txiki eta handietako txapelketak eta Igeldoko Harria izango dira aurten ere aipagarrienak, ohiko harrijasotzaileekin gainera

Koldo Alduntzin / Donostia

HARRI-JASOTZE denboraldia joan den maiatzaren 16an hasi zen III. Insausti Harria Txapelketarekin. Iazko denboraldiari, Euskal Herriko harri txikietako Txapelketarekin eman zitzaion amaiera, txapelketa ofizialei dagokienez. Harrezkero, erakustaldietan eta marka ahaleginetan aritu dira harrijasotzaileak. Hemendik aurrera, herrialdeetako eta Euskal Herriko txapelketak prestatzeari ekingo diote. Tartean, hala ere, hiruzpalau marka ahalegin izango dira ikusgai.

Arestian aipatutako Insausti Harria Txapelketa joan den maiatzaren 16an jokatu zen Legorretan (Gipuzkoa). Eite zaharreko 100 kiloko zilindroarekin jardun zuten 3 minutuko bi txandatan. Aiako Jexumari Iruretagoiena gailendu zen iaz bezala, eta iazko marka eginda: 60 jasoaldi. Bigarren Luismari Telleria Lasartekoa izan zen lehen urteko garailea, 57 jasoaldi eginda, eta hirugarren, Joseba Arizaga Zestoakoa, 24 jasoaldira.

Aste bat lehenago, harrijasotzaile onentsuenek jardun zuten Berriatuan (Bizkaia): Izeta II.ak, Zelaik eta Goenatxok. 150 kiloko harri



KOLDO ALDUNTZIN

Jexumari Iruretagoienak irabazi zuen Insausti Harria, Legorretan.

Txapelketen Egutegia ♦

txapelketaren izena	data	leku
E. H.ko harri handietako kinttopekoak	abuztuak 21	Ekora
Euskal Herriko harri txikiak	irailak 13	Arbitzaga
Nafarroako Txapelketa	uztailak 10	Iruñea
Iparraldeko Txapelketa	uztailak 13	Angelu
Gipuzkoako Txapelketa	uztailak 3	Zumarraga
Ambako Txapelketa	200 luxteko	200 luxteko
Bizkaiko Txapelketa	200 luxteko	200 luxteko
Igeldoko Harria	abuztuak 8	Donostia

A. PUECO

kuboa eta 150eko koadroa erabili zituzten. Bakoitzarekin hiruna minutuko txandak egin zituzten. Izetak irabazi zuen, bi harriekin 36 jasoaldi eginda, biharren Zelai sailkatu zen 35 jasoaldira, eta Goenatxok 34 egin zituen.

Aurten ere hiru horiek izango dira aipagarrienak. Goenatxo harri handietako txapelketan eta Igeldoko Harrian aritzeko asmoa duela zioen. Zelaik harri handietan ariko dela adierazi zigun, eta txikietan esku hartu edo ez zalanza du. Izeta Gipuzkoako eta Euskal Herriko harri txikietan eta Igeldoko Harriarekin ariko da.

Txapelketa berririk ez

Aipaturikoez gain, Elusukortan, Joxe Goikoetxea eta Joseba Ostolaza izango dira gutxi asko txapelketetan ariko direnak. Elusukortak harri handiekin jarraitzeko asmoa duela adierazi zigun. Zelailuzek eta Carlos Atxak ere esku hartuko dute herrialdeetako txapelketetan.

Bestetik, hor dira Landarbidet, Betelu, Isaac Martinez Gesaltzako Tigrea eta beste bat, oraindik erabakirik gabe dutenak udako jarduna.

Izeta III.a indartsu; Egi eta Oliden berriro

■ GERO ETA zailago gertatzen ari da harrijasotzaile gazteak sortzea, eta hain helduak ez direnak lagundu beharko dira aurrera egin dezaten. Maiatzaren 16an jendaurreko lehen agerraldia egin zuen Joseba Arizaga Zestoakoa. 17 urte ditu, eta III. Insausti Harria Txapelketan hirugarren geratu zen. Gasteizko San Pedroko eta Beobidek utzia dute jarduna, oraingoz.

Aiako Izeta III.ak bigarren urtea du. 25 urte ditu, eta Gipuzkoako harri txikietako eta Igeldoko Harria txapelketetan aritzekoa da. Jon Beristain Aitzeta Mutrikuko gazteak gora egin behar du. Bestalde, Iñaki Oliden Oriokoa eta Javier Arriola Egi Elgoibarkoa hasi dira berriro entrenatzen. Iaz ez zuten jardun, osasun arazoengatik.

Orain dela hiru urte baziren kinttopekoen txapelketak, baina urritu dira, eta Euskal Federakundearen Torneoak ere jai izango du aurten.

Saralegik ez du marka ahalegina egingo epe laburrera

■ MIEL SARALEGIK urteko bi marka ezarri izan ditu azken urteetan, baina iaz positiboak eta aurten 328ko koadroa bizkarreratu ezin izanak etenarazi egin diote urteko bi marka ontzeko bidea. Aian 327koa leporatu ondoren, maiatzaren 1ean ezin izan zuen 328koarekin. Gerora eginiko prestatketan, berriro saiatzeko moduan zela zirudien, baina anaia Narxik esan zigun oraingoz alde batera utziko dutela, proposamenik ez dutelako, eta erakustaldiak hasi delako.

Azkenaldiko emaitza nagusiak ♦

Proba	Leku	Gazteak eta markak (lehen)	Jasoaldiak	Data	Leku
III. Insausti Harria	100 k. zilindroa (37 / bi banda)	"Ezeta III."	60 (30+30)	99-05-16	Legorreta
Berriatuko Txapelketa	150eko kubo (37) eta 150eko koadroa (37)	"Ezeta II."	36 (12+24)	99-05-09	Berriatua
Marka Ahalegina	327 ko koadroa (5)	Miel saralegi	1	99-04-10	Aia
Marka Ahalegina	175 ko berun-koadroa (30)	"Cementos"	37	98-11-30	Azkoitia
Marka Ahalegina	163 ko zilindro-kopa (5)	"Zela"	26	99-02-03	Ahualde
Marka Ahalegina	163 zilindroa (10)	"Zela"	45	99-02-22	Casleku
Marka Ahalegina	188 ko kubo (5)	"Landerbide"	3	99-04-11	Astasu
Marka Ahalegina	200eko koadroa (5 / 3 banda)	"Landerbide"	32	98-12-21	Donostia
Marka Ahalegina	170eko zilindroa	Iñaki Perena (Sena)	3	99-04-15	Zumaita

A. PUECO

Zelaik ere ohituta gauzka marka ahaleginetara. Aurten bi egin ditu, eta igandean beste

ahalegin bat egingo du Balmasedan. 163ko zilindroarekin ariko da, 10 minutuko txandan

45 jasoaldiko marka ontzeko. Bi aste barru, 5 minutuko txanda egingo du harri horrekin Di-

man, 26 jasoaldiko marka ontzeko asmoz. Izeta II.ak, berriz, larunbat gauean egingo du

urteko lehen ahalegina, Azpeitian. 100 kiloko kuboarekin jardungo du minutuko txandan.